



ONARTUTAKO TXOSTENAREN AZALPEN LABURRA

Egitekoa

- Atal honek Gure Esku Dagoen oinarriari egiten die erreferentzia. Finean, sortuz geroztik aipatu izan ditugun gure hiru printzipioen berrespena dakar: herri bat gara, erabakitze eskubidea daukagu, herritarron garaia da.

Jarduera = ZER egingo dugu

- Atal honek gerora landuko den ekintza planaren oinarriak aipatzen ditu.
- Gure Esku Dago dinamikoaren kideok iaz egindako orri zurien ariketari esker, erabakia gauzatzeko bidean 3 ildo marraztu genituen: ehundu, adostu, erabaki. Oraingo honetan, **adostasunaren garrantzia eta berau lantzeko asmoa jasotzen du dokumentuak.**
- Elkarlan eremu gisa ulertzen dugu Gure Esku Dago, eta hortaz, erabakia gauzatzeko bada herritarron arteko adostasuna bilatzeko motorra izango da. Horrela, askatuko ditugu korapiloak; **erantzungo diegu “zer?” “noiz?” eta “nola?” galderei.**
- Galdera horiei erantzuteko konpromisoari heldu dio Gure Esku Dago, eta hori modu eraginkor batean egin nahi du, bide orri adostu eta zabal batekin.
- Herriz herri eta auzoz auzo, esperientzia desberdinen bitartez eta lekuan lekuko errealitatera egokituta, **ERABAKITZEKO ADIERAZPENAK** osatuko ditugu. Erantzunez, batetik, bertako erabaki-nahia adierazteari, baina baita erabakiaren gauzapenak sortzen dituen korapiloak askatzeko asmotan: zer erabaki, nola, noiz... bakoitzak ahal duen tamainan, baina galderei erantzunak ematen hasteko ordua da.
- **Erabakitze Adierazpen horiek 2016ko ekainaren 12an aurkeztuko ditugu,** eskualde, herri edota auzoetan, erabakitze borondateen adierazpen eguna izango da.
- Eta hain zuzen ere, Erabakitze Adierazpen guzti horiek izango dira erabakia gauzatzeko ezinbesteko zaigun adostasun zabal eta eraginkorraren motore: **ERABAKITZEKO ITUNA** bultzatuko dutenak.
- Era berean, erabakitze adierazpenek lekuan leku izandako lanketaren arabera, eta adostasunaren eremuan pausoak eman badira, **HERRI GALDEKETAK** izango dira horren adierazpiderik onena.
- Auzo, herri eta eskualdeetan batutako erabakitze borondateetatik abiatuta, guztien topagune izango den adostasun eremu zabalago bat bultzatuko dugu, gaurko egoeratik erabakitze eskubidea gauzatzera eramango gaituen Ituna.
- Herri galdekete ere badute pisua. Adostasunaren eremu horretan aski aurreratu duten herriek praktikari helduko diote. Praktikak berak erantzungo baititu galdera guztiak.

Antolamendua

- Gure Esku Dago herri dinamikoaren egoki jarduteko beharrezko duen egituraketa proposatzen du atal honek.
- Barne antolaketari egiten dio erreferentzia, bereziki, dinamikoaren baitako partehartzea ahalik eta demokratikoa eta, era berean, eraginkorra izan dadin.

Finantzamendua

- Gure Esku Dago ekonomiko bideragarria izan dadin errespetatu beharreko oinarriak finkatzen dira atal honetan, gero finantzaketa plana egiteko oinarri gisa.
- **Autofinantzaketari garrantzia berezia ematen zaio, eta dagoeneko badago aukera Gure Esku Dago dinamikoaren kuota ordaintzeko.**